



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO EKAINAREN 12AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palaciossek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/05/29.

Batzarkideek, 2018ko maiatzaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- KULTUR EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2018-0018

Ikusirik

2018ko otsailaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko hogeni laneguneko epea emanez. Hau da, eskaerak 2018ko martxoaren 12a baino lehen aurkeztu behar ziren.

Epea horretan, guztira 18 taldek aurkeztu dituzte eskaerak.


Maiatzaren 8ko Diru-laguntzen Batzorde Orokorak ebazpen proposamena egin zuen. Ebazpen proposamen hau maiatzaren 17an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizen alegazioak aurkezteko.

Maiatzaren 31ean amaitu da alegazioak aurkezteko epea, eta epe horretan taldeek ez dute alegaziorik aurkeztu.

Eta kontuan harturik

- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (2017/07/18)
- 2018an kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2018/02/12).
- 2018ko diru-laguntzen behin behineko ebazpena (GAO, 2018/05/08)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:




Usurbilgo Udala

ERABAKIA

Lehenengoa: 2018an Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek behin betiko onartzea eta diru-laguntzaren %75a ordaintzea.

| Taldea | Diru laguntza | %75 |
|--|--------------------|--------------------|
| Einean guraso Eskola (zb.52) | 3.690,00 € | 2.767,50 € |
| Jexux Artze Kultur Elkartea (Zb.53) | 4.418,00 € | 3.313,50 € |
| Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.54) | 1.354,75 € | 1.016,06 € |
| Gipuzkoako Bertso zale elkarte (zb.59) | 1.516,24 € | 1.137,18 € |
| San Praixku Guraso Elkartea (Zb.60) | 9.095,00 € | 6.821,25 € |
| Antxomolantxa (Zb.61) | 7.619,50 € | 5.714,63 € |
| Lauburu Konpartsa (Zb. 62) | 1.710,00 € | 1.282,50 € |
| Noaua! (zb.64) | 12.363,45 € | 9.272,59 € |
| Irriu Abesbatza (zb.65) | 475,00 € | 356,25 € |
| Organoaren Lagunak (Zb.66) | 2.698,00 € | 2.023,50 € |
| Alex Tello (Zb. 67) | 1.775,00 € | 1.331,25 € |
| Orbeldi Dantza Taldea (Zb.68) | 3.555,00 € | 2.666,25 € |
| Zubietako Eskolako Guraso Elkartea (Zb.69) | 4.510,00 € | 3.382,50 € |
| Usurbilgo Gure Esku dago (Zb. 70) | 2.300,00 € | 1.725,00 € |
| Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (Zb.71) | 2.465,00 € | 1.848,75 € |
| Ziortza Gazte Elkartea (Zb.72) | 12.166,45 € | 9.124,84 € |
| Santuenea Kultur Elkartea (Zb.73) | 4.075,00 € | 3.056,25 € |
| Hitz Aho edarregi ikastolako gurako Elkartea (Zb.74) | 2.973,40 € | 2.230,05 € |
| Guztira | 78.759,79 € | 59.069,85 € |



Usurbilgo Udala


Bigarrena: Ekintza bakoitzari diru-laguntza hau dagokio.

| | | Ekintza | Diru Laguntza | %75 |
|--|----|---|----------------------|------------|
| Einean guraso Eskola (zb.52) | 1 | Pintura | 1.600,00 € | 1.200,00 € |
| | 2 | Laboreak | 150,00 € | 112,50 € |
| | 3 | Eskulanak | 1.500,00 € | 1.125,00 € |
| | 4 | Argazkigintza | 440,00 € | 330,00 € |
| Jexux Artze Kultur Elkartea (Zb.53) | 5 | TOSTA BANDAREN kontzertu ikuskizunaren entsegu orokorra | 0,00 € | 0,00 € |
| | 6 | “Errementari” pelikula | 260,00 € | 195,00 € |
| | 7 | “Ez dok hiru” antzezlan | 4.158,00 € | 3.118,50 € |
| Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.54) | 8 | Txan Magoa | 285,00 € | 213,75 € |
| | 9 | Eskulan tailerra | 99,75 € | 74,81 € |
| | 10 | Olatz Korta kantu emanaldia | 237,50 € | 178,13 € |
| | 11 | Kurtso amaierako festa | 66,50 € | 49,88 € |
| | 12 | Malabareak: Max Malabarista | 237,50 € | 178,13 € |
| | 13 | Euskarazko pelikula | 28,50 € | 21,38 € |
| Gipuzkoako Bertso zale elkarte (zb.59) | 14 | Ludoteka | 400,00 € | 300,00 € |
| | 15 | Usurbilgo Bertso eskola | 1.516,24 € | 1.137,18 € |
| San Praixku Guraso Elkartea (Zb.60) | 16 | “Trakamatraka”ko tailerra | 420,00 € | 315,00 € |
| | 17 | “Zure ametsetako gela” Tailerra | 260,00 € | 195,00 € |
| | 18 | Euskararen eguna | 2.375,00 € | 1.781,25 € |
| | 19 | Udako txokoak | 1.500,00 € | 1.125,00 € |
| | 20 | Gabonetako txokoak | 390,00 € | 292,50 € |
| | 21 | Aste Santuko txokoak | 390,00 € | 292,50 € |
| | 22 | Ipuin kontaketa | 0,00 € | 0,00 € |
| | 23 | Aginagako Eskola eguna | 2.850,00 € | 2.137,50 € |
| | 24 | Pintura eta eskulan ikastaroa | 550,00 € | 412,50 € |
| Antxomolantxa (Zb.61) | 25 | Euskal Dantzak | 360,00 € | 270,00 € |
| | 26 | OM eta NAOren kontzertua | 1.200,00 € | 900,00 € |
| | 27 | “Eingo al deu” antzerkia | 200,00 € | 150,00 € |
| | 28 | Dantza musikatuak | 0,00 € | 0,00 € |



Usurbilgo Udala

| | | | | |
|----------------------------|----|--|------------|------------|
| | 29 | Kalaka Egurrezko joko kooperatiboak | 0,00 € | 0,00 € |
| | 30 | Zientzia tailerrak familian | 835,00 € | 626,25 € |
| | 31 | "Berdintasun ipuinak" Badut ipuin musikatuak | 598,50 € | 448,88 € |
| | 32 | "Txirriski -Txoria" ipuin musikatua | 0,00 € | 0,00 € |
| | 33 | Perkusio tailerra haurrentzat | 408,00 € | 306,00 € |
| | 34 | Imanol Ituño magoa | 0,00 € | 0,00 € |
| | 35 | Ludoteka | 400,00 € | 300,00 € |
| | 36 | Katxiporreta "Haizearen Herrira" | 2.475,00 € | 1.856,25 € |
| | 37 | "Ergela" Antzerkia Txalo konpainia | 0,00 € | 0,00 € |
| | 38 | Gazte-Lekua | 400,00 € | 300,00 € |
| | 39 | Txirri Mirri eta Triribiton "Patxistein doktorea" | 0,00 € | 0,00 € |
| | 40 | Gari, Montxo eta Joselontxo "Supituki" ikuskizuna | 0,00 € | 0,00 € |
| | 41 | Txaloka "Standa Banda" ikuskizuna | 0,00 € | 0,00 € |
| | 42 | San Juan Sua | 304,00 € | 228,00 € |
| | 43 | Olentzeroren Etorrera Aginagan | 304,00 € | 228,00 € |
| | 44 | Natura tailerrak: Xaboi, kandelak, golosina naturalak egin | 475,00 € | 356,25 € |
| | 45 | Kontzertua | 0,00 € | 0,00 € |
| | 46 | Aginagako Anfibio eta narrastiak ezagutzeko | 20,00 € | 15,00 € |
| Lauburu Konpartsa (Zb. 62) | 47 | Mantenua | 570,00 € | 427,50 € |
| | 48 | Truke ekintza | 570,00 € | 427,50 € |
| | 49 | Truke ekintza | 570,00 € | 427,50 € |
| Noaua! (zb.64) | 50 | Inauteriak 2018 | 2.178,95 € | 1.634,21 € |
| | 51 | Film laburren zirkuitua 2018 | 515,85 € | 386,89 € |
| | 52 | Hitzaldi-solasaldia | 522,50 € | 391,88 € |
| | 53 | Plis Plas Txalo eta jolas | 984,68 € | 738,51 € |
| | 54 | Kulturaldia 2018 | 7.500,00 € | 5.625,00 € |
| | 55 | Pelikula, antzerkia edo hitzaldi bat | 661,48 € | 496,11 € |
| Irriu Abesbatza (zb.65) | 56 | Urteko ekintzak | 475,00 € | 356,25 € |
| Organoaren Lagunak (Zb.66) | 57 | Donostia Musika hamabostaldi inguruko Organo kontzertua | 1.890,50 € | 1.417,88 € |



Usurbilgo Udala

| | | | | |
|--|----|---|------------|------------|
| | 58 | Donostia Musika hamabostaldi inguruko Organo-joleen bilkura | 256,50 € | 192,38 € |
| | 59 | Organo kontzertua | 456,00 € | 342,00 € |
| | 60 | Euskal Organo-joleen bilkura | 95,00 € | 71,25 € |
| Alex Tello (Zb. 67) | 61 | 2. Afalosteko kontzertua: Xabi San Sebastian | 1.775,00 € | 1.331,25 € |
| Orbeldi Dantza Taldea (Zb.68) | 62 | Inauterietan dantza emanaldia | 285,00 € | 213,75 € |
| | 63 | Auzoetako dantza emanaldiak | 950,00 € | 712,50 € |
| | 64 | Dantza garaikide ikastaroa | 420,00 € | 315,00 € |
| | 65 | Atzerriko dantza taldeen emanaldia | 1.900,00 € | 1.425,00 € |
| Zubietako Eskolako Guraso Elkartea (Zb.69) | 66 | Aste Kulturala | 1.425,00 € | 1.068,75 € |
| | 67 | Euskal Dantzak | 1.000,00 € | 750,00 € |
| | 68 | Hitzaldiak | 285,00 € | 213,75 € |
| | 69 | Udako txokoak | 1.800,00 € | 1.350,00 € |
| Usurbilgo Gure Esku dago (Zb. 70) | 70 | Herritarren ituna tailerrak | 300,00 € | 225,00 € |
| | 71 | Klik Eguna | 1.000,00 € | 750,00 € |
| | 72 | Giza Katea | 1.000,00 € | 750,00 € |
| Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (Zb.71) | 73 | Kantu jira | 1.520,00 € | 1.140,00 € |
| | 74 | Kantu ikastaroa | 660,00 € | 495,00 € |
| | 75 | Ekimenak | 285,00 € | 213,75 € |
| Ziortza Gazte Elkartea (Zb.72) | 76 | Urteko saioak | 599,45 € | 449,59 € |
| | 77 | Urteko elkarbizitza | 52,00 € | 39,00 € |
| | 78 | Kanpaldia 2018 Behar bereziak dituzten gazteak | 0,00 € | 0,00 € |
| | 79 | Kanpaldia 2018 | 9.900,00 € | 7.425,00 € |
| | 80 | Kabalgata 2019 | 1.615,00 € | 1.211,25 € |
| Santuenea Kultur Elkartea (Zb.73) | 81 | Pintura eta plastika | 1.740,00 € | 1.305,00 € |
| | 82 | Argazki Lehiaketa | 285,00 € | 213,75 € |
| | 83 | Pailazoak | 1.210,00 € | 907,50 € |
| | 84 | Gabonak | 840,00 € | 630,00 € |
| Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso Elkartea (Zb.74) | 85 | Hezkuntza emozionala | 1.500,00 € | 1.125,00 € |
| | 86 | Jostailu erabilien azoka. Jostailu trukea | 9,50 € | 7,13 € |



Usurbilgo Udala

| | | | | |
|--|----|--|--------------------|--------------------|
| | 87 | Udarregi ikastolako kultur astea | 1.059,25 € | 794,44 € |
| | 88 | Biodantza gurasoentzat | 301,80 € | 226,35 € |
| | 89 | Josketa tailerra | 100,00 € | 75,00 € |
| | 90 | Hitzaldi-tailerra: Gaixotan larrien aurrean nola esplikatu haurrei | 2,85 € | 2,14 € |
| | | GUZTIRA | 78.759,79 € | 59.069,85 € |

Hirugarrena: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Laugarrena: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

Bosgarrena: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

Seigarrena: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

Zazpigarrena: 2018ko urriaren 31 bitartean egindako ekintzak 2018ko azaroaren 16a baino lehenago zuritu behar dira.
Azaroa eta abenduko ekintzak, berriz, 2019ko urtarrilaren 15a baino lehenago zuritu behar dira.

Zortzigarrena: Zuriketak egiterakoan, udalak onartutako gastu guztia zuritu behar da.

Bederatzigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira:
1.4000.481.334.00.03 (A 2/2018)

Hamargarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamaikagarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian behin betiko ebazpenaren berri ematea.

Hamabigarrena: Kontu-hartzaileari erabakia jakinaraztea.

3.- KIROL EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

2018ko otsailaren 13an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogei laneguneko epea emanaz. Epea amaitu ondoren, lerro bakoitzari dagozkien eskaera hauek izan dira:



Usurbilgo Udala

- 1.- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenearako 11 eskaera jaso dira, iaz bezala.
- 2.- Emakumeen eta gizonen berdintasun jardueretako eskaera bat jaso da.
- 3.- Kirol egokituko jardueretako eskaera bat baina bi jardueretako. Bata Ohikoetarako eta beste Ez Ohikoetarako.
- 4.- Kiroletako ez direnen kirol jarduerak egiteko 2 eskaera jaso ditugu: Einean Guraso Eskolakoa, yoga, sabel dantza/hip-hop eta masaje ikastaroetarako, eta San Praixku Guraso Elkartekoa, psikomotrizitate, patin eta frontenis ikastaroetarako

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin zuen eta martxoaren 26an egindako Kirol Batzordean, 2018ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2018ko maiatzaren 8ko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorak ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Maiatzaren 31n amaitu da alegazioak aurkezteko epea, eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

KONTUTAN HARTURIK


- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- 2018an kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2018/02/13).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2018ko kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea.

- 1.- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenearako



Usurbilgo Udala

| | D.Lag. | 1.zatia |
|----------------------|---------------|----------------|
| Tximeleta | 1.927,83 € | 963,92 |
| Andatza M | 3.674,66 € | 1.837,33 |
| Baxurde txiki | 1.967,76 € | 983,88 |
| Bazpi | 1.906,67 € | 953,34 |
| Beterrri Sub | 440,15 € | 220,08 |
| Usurbil FT | 6.316,51 € | 3.158,26 |
| Usurbil JC | 6.937,67 € | 3.468,83 |
| Makax | 1.073,85 € | 536,93 |
| Pagazpe | 2.070,74 € | 1.035,37 |
| Usurbil KE | 16.764,50 € | 8.382,25 |
| Zubieta PE | 1.919,65 € | 959,82 |
| | 45.000,00 | 22.500,00 |

2.- Emakumeen eta gizonen berdintasun jardueretako

| | D.Lag. | 1.zatia |
|------------|---------------|----------------|
| Usurbil FT | 2.320,00 € | 1.160,00 |

3.- Kirol egokituko jardueretako bata Ohikoetarako eta bestea Ez Ohikoetarako.

Ohiko ekintzetarako:

| | D. Lag. | 1.zatia |
|-------------------------|----------------|----------------|
| Pagazpe Pilota Elkartea | 1.689,66 € | 844,83 |

Ez Ohiko ekintzetarako:

| | D.Lag. | 1.zatia |
|-------------------------|---------------|----------------|
| Pagazpe Pilota Elkartea | 1.310,34 € | 655,17 |

Denera: 3.000,00 €

4.- Kirol elkarte ez direnen kirol jardueretako

| | D.Lag. | 1.zatia |
|-----------------------------|---------------|----------------|
| Einean Guraso Elkartea | 360,00 € | 180,00 € |
| San Praixku Guraso Elkartea | 640,00 € | 320,00 € |
| Denera: | 1.000,00 € | 500,00 € |



Usurbilgo Udala

Bigarrena: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan ez da diru-laguntzarik emango.

Hirugarrena: Diru laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.

Laugarrena: Gainerako %50a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

Bostgarrena: Denboraldika zuritzekoa dutenentzat, zuritzeko azken eguna 2018ko irailaren 22a izango da eta gainontzekoentzat azken eguna 2019ko urtarrilaren 19a izango da.

Seigarrena: Gastua aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

- 1 4300 481 341 00 01 Kirol taldeen ohiko diru-laguntza zuzenak (A 20-2018)
- 1.4300.481.341.00.02 Emakume eta gizonen berdintasun kirol jarduerak (A 21-2018)
- 1.4300.481.341.00.06 Kirol egokitua (A 22-2018)
- 1.4300.481.341.00.07 Kirol elkarte ez direnen kirol jarduerak (A 23-2018)

Zazpigarrena: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Zortzigarrena: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

Bederatzigarrena: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta Udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

Hamaikagarrena: 3.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza denean, ebazpena Udaletxeko iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamabigarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamahirugarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Hamalaugarrena: Kontu-hartzaileari akordioaren berri ematea.

4.- GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2018ko otsailaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2018. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeitau eguneko epea emanez, hau 2018ko martxoaren 12an bukatu zelarik.



Usurbilgo Udala

Epea amaitu ondoren, guztira 19 elkarte izan dira diru-laguntza eskaera aurkeztu dutenak, iaz aurkeztutako elkarte kopurua baino 2 gehiago.

Eskaerak aztertu ondoren, 5 elkartek osatu gabe aurkeztu zuten eskaera. Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarrietan zehazten den moduan, interesatuei hamar eguneko epea eman zitzaien falta zen dokumentazioa aurkezteko.

Aipatutako taldeak eskatutako dokumentazioa epe barruan aurkeztu zuten

2018ko maiatzaren 8ko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu

Hori horrela, 2018ko maiatzaren 16an ospatutako Ohiko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2018. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

Eta kontutan harturik


- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2017-07-18).
- 2018an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2018-02-12)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez;

E R A B A K I A

LEHENENGOA: 2018. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuru hauek onartzea.

| TALDEAREN IZENA | ONARTUTAKO LAGUNTZA %100 | 1. ORDAINKETA %50 |
|---|---------------------------------|--------------------------|
| 1. ACABE (Euskadiko anorexia eta bulimiaren aurkako elkarte) 1 | 680,50€ | 340,25 € |
| 2, ADAHIGI (Arreta Gabeziaren Nahastea, Hiperaktibitatearekin edo gabe) 2 | 504,03€ | 252,02 € |
| 3. ADEMGI (Esklerosia anizkuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte) 3 | 261,38€ | 130,69 € |
| 4. AECC (Minbiziaren aurkako elkarte) 4 | 590,00€ | 295,00 € |
| 5, AGI (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarte) 5 | | |



Usurbilgo Udala

| | | |
|---|---------|----------|
| | 570,20€ | 285,10 € |
| 6. AGIFES (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarteak) | 636,38€ | 318,19 € |
| 7. AGIPASE (Guraso bananduen elkarteak) | 680,50€ | 340,25 € |
| 8. ALCER (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak) | 702,55€ | 351,28 € |
| 9. ATECE (Traumatismo Kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak) | 636,38€ | 318,19 € |
| 10. ATZEGI (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarteak) | 856,97€ | 428,49 € |
| 11, AVAIM (Tratu txarrak jasotako haurren laguntzarako Euskal elkarteak) | 879,03€ | 439,52 € |
| 12. BEGISARE (Erretinosi pigmentarioa duten pertsonen elkarteak) | 526,08€ | 263,04 € |
| 13. BIKARTE (Haur errusiar eta bielorrusiarren harrerarako elkarteak) | 371,67€ | 185,84 € |
| 14. GIT (Gipuzkoako itxaropen telefonoa) | 592,26€ | 296,13 € |
| 15. GAUTENA (Autismoaren Gipuzkoako Elkarteak) | 500,00€ | 250,00 € |
| 16. IZAN FUNDAZIOA (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarteak) | 812,85€ | 406,43 € |
| 17. GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA | 750,00€ | 375,00 € |
| 18. ORTZADAR ELKARTEA (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsonen zuzendua) | 724,61€ | 362,31 € |
| 19. PAUSOKA ELKARTEA (Behar bereziak dituzten gurasoen elkarteak) | 724,61€ | 362,31 € |

BIGARRENA: Diru- laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.

HIRUGARRENA: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira egitasmo guztiak.

LAUGARRENA: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

BOSGARRENA: Aurrikusitako gastua baino txikiagoa egiten bada, dirua itzuli egin beharko da.

SEIGARRENA: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.



Usurbilgo Udala

ZAZPIGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

ZORTZIGARRENA: Jasotako diru-laguntza zuritzeko azken eguna 2019ko urtarrilaren 15a izango da.

BEDERATZIGARRENA: Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.481.231.03.02.2018 Dirulag: Irekiak: Elkarteen asmoak (**A 18-2018**)

HAMARGARRENA: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

HAMAIKAGARRENA: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

HAMABIGARRENA: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

5.- IGOGAILUAK INSTALATZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2018ko otsailaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2018. urtean igogailuak instalatzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeiguneko epea emanez, hau 2018ko martxoaren 12an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, eskaera bat aurkeztu da epez kanpo.

2018ko maiatzaren 8ko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuari 10 eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu

Hori horrela, 2018ko maiatzaren 16an ospatutako Ohiko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, Igogailuak instalatzeko 2018. urteko diru-laguntzaren proposamenaren berri eman zen.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2017-07-18).
- Igogailuak instalatzeko 2018. urteko diru-laguntzen oinarriak (GAO, 2018-02-12)



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Cristian ESNAL ANTON-i igogailua instalatzeko diru-laguntza ez ematea, eskaera epez kanpo egin eta baldintzak ez betetzeagatik.

BIGARRENA: Datorren urtean baldintzak bete ditzakeela aurreikusiz, 2019ko deialdian, epe barruan (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 20 eguneko epean) eta dagokion dokumentazioa aurkeztuz, eskaera egitera orientatzea.

HIRUGARRENA: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

LAUGARRENA: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

6.- DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEEI ERANTZUTEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Usurbilgo Udalak 2005eko ekainaren 17an egindako Udalbatzan Diru-laguntzak Arautzeko Ordenantza onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2005eko abuztuaren 18an, behin betiko izaerarekin.

Ordenantza honen 1. atalean Norgehiagoka Erregimeneko diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala.

2018ko otsailaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2018. urteko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeitun eguneko epea emanez, hau 2018ko martxoaren 12an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, diru-laguntza eskaera bat aurkeztu da.

Hori horrela, 2018ko maiatzaren 16an ospatuko den Ohiko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2018. urteko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2017-07-18).
- Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2018. urteko diru-laguntzen oinarriak (GAO, 2018-02-12)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENENGOA: Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2018. urteko diru-laguntzen diru-laguntza kopuru hauek onartzea:

| | |
|-------------------------------|------------|
| ANZA SUBERBIOLA, Maria Carmen | 3.549,60 € |
|-------------------------------|------------|

BIGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

HIRUGARRENA: Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.480.231.03.03.2018 Dirulag: Irekiak: Deserrotze arriskuan (A 17-2018).

LAUGARRENA: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

BOSGARRENA: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

SEIGARRENA: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea.

7.- INGURUMEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.


Esp. Zenbakia: HZ.06/2018-0045

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko urtarrilaren 30eko bilkuran, besteren artean ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2018ko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarrien testu osoa, 2018ko otsailaren 12an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 30. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hogeitun laneguneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten.

Zortzi eskatzaile aurkeztu dira:

1. Emilio Marcos
2. Nekane Ariz Eskisabel
3. Ekiñe Zalakain Martija
4. Francisco Javier Espina Roma
5. Ainhoa Azpirotz Eizmendi
6. Ione Eizmendi Mujika
7. Jose Maria Rivadeneyra



Usurbilgo Udala

8. Antonio Urdangarin Oliden

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin du.

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostena Nekazaritza eta Ingurumen Batzordera eramango da. 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostenaren berri emango zaio Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeari.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek 2018ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, zegokion ebazpen-proposamena egin zuen. Oinarriek zehaztutakoaren arabera, ebazpen-proposamena jendaurrean jarri zen 10 egunez. Iragarkia 2018ko maiatzaren 17an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 94. zenbakian. Jendaurreko epealdian ez da inolako alegaziorik izan.

Guzti hau kontutan izanik, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek egindako proposamena ezaguturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2018an ondoko diru-laguntzak onartzea:

| Interesatua | Ekintza | Babestutako aurrekontua | Diru-laguntza |
|------------------------------|-------------------------------------|-------------------------|-------------------|
| Emilio Marcos | LED argiteria aldaketa | 159,38 € | 80,00 € |
| Nekane Ariz Eskisabel | Hornitzaile berriztagarria (Goener) | 100,00 € | 50,00 € |
| Francisco Javier Espina Roma | LED argiteria aldaketa | 268,85 € | 134,00 € |
| Ainhoa Azpìrotz Eizmendi | LED argiteria aldaketa | 1.815,44 € | 908,00 € |
| Ione Eizmendi Mujika | Elektrogailu eraginkorrak | 1.162,00 € | 581,00 € |
| Jose Maria Rivadeneyra | Hornitzaile berriztagarria (Goener) | 100,00 € | 50,00 € |
| GUZTIRA | | 3.605,67 € | 1.803,00 € |

BIGARRENA: Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 100a ordaintzeko agintzea Kontuhartzailtzari, 1-6100-480-172-00-01-2018 (A 25/2018) aurrekontu partidatik:

| Interesatua | Ekintza | Babestutako aurrekontua | Diru-laguntza |
|---------------|------------------------|-------------------------|---------------|
| Emilio Marcos | LED argiteria aldaketa | 159,38 € | 80,00 € |



Usurbilgo Udala

| | | | |
|------------------------------|---------------------------------------|-------------------|-------------------|
| Nekane Ariz Eskisabel | Hornitzaile berriztagarria (Goier)er) | 100,00 € | 50,00 € |
| Francisco Javier Espina Roma | LED argiteria aldaketa | 268,85 € | 134,00 € |
| Ainhoa Azpìrotz Eizmendi | LED argiteria aldaketa | 1.815,44 € | 908,00 € |
| Ione Eizmendi Mujika | Elektrogailu eraginkorrak | 1.162,00 € | 581,00 € |
| Jose Maria Rivadeneyra | Hornitzaile berriztagarria (Goier)er) | 100,00 € | 50,00 € |
| GUZTIRA | | 3.605,67 € | 1.803,00 € |

HIRUGARRENA: Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2018an ondoko diru-laguntza eskaerak **batertzea:**

| Interesatua | Ekintza | Arrazoia |
|---------------------------|---------------------------------------|-------------------------------|
| Ekiñe Zalakain Martija | Hornitzaile berriztagarria (Goier)er) | Egitasmoa ez da garatu 2017an |
| Antonio Urdangarin Oliden | Elektrogailu eraginkorrak | Egitasmoa ez da garatu 2017an |

LAUGARRENA: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

BOSGARRENA: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

SEIGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

ZAZPIGARRENA: Oinarrietako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek ondoko beteharrak bete beharko dituzte:

- Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- Jarduera egin dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.



Usurbilgo Udala

- Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
- Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea –Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitopenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

- Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara behintzat erabili beharko du ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan. Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, UEMAren hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa.
- Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura.
- Diru-laguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak beteko dira.

ZORTZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaio.

8.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2018-0046

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko urtarrilaren 30eko bilkuran, besteren artean nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko 2018ko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarrien testu osoa, 2018ko otsailaren 12an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 30. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hogeitau laneguneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten.

Hamahiru eskaera jaso dira. Lau eskaera bitan batu ostean, hamaika eskaera dira aztertu direnak:



Usurbilgo Udala

1. Jon Argote Bengoechea
2. Arantxa Arrospide Iraeta
3. Alkartasuna baserriarren kooperatiba
4. Igor Matxain Arrozpide
5. San Paixku Guraso Elkartea
6. BASATXERRI
7. Koldo Huegun Zapirain
8. Maria Dolores Goenaga Iribar
9. Jexux Agirresarobe Arzallus / Aitziber Elorza Mendizabal
10. Joxe Mari Zubimendi Urdanpilleta
11. Arantxa Arruti Ustoa

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin du.

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostena Nekazaritza eta Ingurumen Batzordera eramango da. 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostenaren berri emango zaio Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeari.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek 2018ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, zegokion ebazpen-proposamena egin zuen. Oinarriek zehaztutakoaren arabera, ebazpen-proposamena jendaurrean jarri zen 10 egunez. Iragarkia 2018ko maiatzaren 17an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 94. zenbakian. Jendaurreko epealdian ez da inolako alegaziorik izan.

Guzti hau kontutan izanik, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek egindako proposamena ezaguturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko 2018an ondoko diru-laguntzak onartzea:

| Taldea | Ekintza | Babestutako aurrekontua | Diru-laguntza |
|---------------------------------|---|-------------------------|---------------|
| Jon Argote Bengoechea | Lur sail bat desbrozatzea | 2.299,00 € | 1.149,50 € |
| Arantxa Arrospide Iraeta | Sagastitarako makina erostea | 5.931,49 € | 2.000,00 € |
| Alkartasuna Baserri kooperatiba | Mahasti zaintza ekologikoa | 1.916,80 € | 1.678,81 € |
| | Sagarrondotik sagarora ikastaroa | 1.327,22 € | |
| | Erlauntzen barroa antzemateko ikastaroa | 113,60 € | |
| Igor Matxain Arrozpide | Biltegia eraikitzeo proiektua | 2.195,43 € | 1.097,72 € |
| San Praxku guraso elkartea | Baratza eta janari ekologikoa ezagutze saioak | 156,29 € | 78,15 € |



Usurbilgo Udala

| | | | |
|---|--|---------------------|--------------------|
| Basatxerri | Inbertsioak edanleku, janleku etab... | 44.938,96 € | 2.000,00 € |
| | Hildako animalien kudeaketa | 1.515,02 € | |
| Koldo Huegun | Hondakin organikoa konpostatzeko gunea | 3.658,46 € | 2.000,00 € |
| | Rotoenpakadoraren erosketa | 18.837,00 € | |
| Maria Dolores Goenaga Iribar | Artaldea berriketa eta traktore mantenua | 1.862,93 € | 931,47 € |
| Jexux Agirresarobe Arzallus eta Aitziber Elorza | Hildako animalien kudeaketa | 88,59 € | 2.000,00 € |
| | Han Goiko gozogintza proiektua eta exekuzioa | 19.799,18 € | |
| Joxe Mari Zubimendi Urdanpilleta | Sagardo produkziarako inbertsioak | 392,72 € | 196,36 € |
| Arantxa Arruti Ustoa | Hildako animalien kudeaketa | 2.097,68 € | 1.048,84 € |
| GUZTIRA | | 107.130,37 € | 14.180,84 € |

BIGARRENA: Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 100a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1-6200-481-412-00-03-2018 (A 26/2018) aurrekontu partidatik:

| Taldea | Ekintza | Babestutako aurrekontua | Diru-laguntza |
|---------------------------------|---|-------------------------|---------------|
| Jon Argote Bengoechea | Lur sail bat desbrozatzeta | 2.299,00 € | 1.149,50 € |
| Arantxa Arrospide Iraeta | Sagastitarako makina erostea | 5.931,49 € | 2.000,00 € |
| Alkartasuna Baserri kooperatiba | Mahasti zaintza ekologikoa | 1.916,80 € | 1.678,81 € |
| | Sagarrondotik sagarora ikastaroa | 1.327,22 € | |
| | Erlauntzen barroa antzemateko ikastaroa | 113,60 € | |
| Igor Matxain Arrozpide | Biltegia eraikitzeke proiektua | 2.195,43 € | 1.097,72 € |
| San Praxku guraso elkarte | Baratza eta janari ekologikoa ezagutze saioak | 156,29 € | 78,15 € |
| Basatxerri | Inbertsioak edanleku, janleku etab... | 44.938,96 € | 2.000,00 € |
| | Hildako animalien kudeaketa | 1.515,02 € | |
| Koldo Huegun | Hondakin organikoa konpostatzeko gunea | 3.658,46 € | 2.000,00 € |
| | Rotoenpakadoraren erosketa | 18.837,00 € | |
| Maria Dolores Goenaga Iribar | Artaldea berriketa eta traktore mantenua | 1.862,93 € | 931,47 € |
| Jexux Agirresarobe | Hildako animalien kudeaketa | 88,59 € | 2.000,00 € |



Usurbilgo Udala

| | | | |
|----------------------------------|--|---------------------|--------------------|
| Arzallus eta Aitziber Elorza | Han Goiko gozogintza proiektua eta exekuzioa | 19.799,18 € | |
| Joxe Mari Zubimendi Urdanpilleta | Sagardo produkziarako inbertsioak | 392,72 € | 196,36 € |
| Arantxa Arruti Ustoa | Hildako animalien kudeaketa | 2.097,68 € | 1.048,84 € |
| GUZTIRA | | 107.130,37 € | 14.180,84 € |

HIRUGARRENA: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

LAUGARRENA: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

BOSGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

SEIGARRENA: Oinarrietako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek ondoko beteharrak bete beharko dituzte:

- Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- Jarduera egin dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
- Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea –Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitopenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

- Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara behintzat erabili beharko du ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar,



Usurbilgo Udala

jakinarazpen eta abarretan. Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, UEMAren hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa.

- Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura.
- Diru-laguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak beteko dira.

ZAZPIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.